

Istripuetako biktimak immobilizatzeko material bat sortu du Tecnaliak

Tecnaliak Varstiff materiala sortu du; hainbat forma har ditzakeen material bigun bat, hutsean zurrun bihurtzen dena, ohiko plastiko baten gogortasuna hartu arte. Materiala egoera malgura itzultzen da, hutsa kentzen zaionean. Varstiff materiala erabiliko den lehen produktua istripuetako biktimak larrialdietan immobilizatzeko tresna bat izango da.

Material berriari esker, istripuren bat gertatzen denean, gorputz-atalak —hala nola lepoa, bizkarra eta toraxa— berehala

immobiliza daitezke, gorputza mugitu gabe. Materiala edozein gorputz-ataletara eta edozein egoeratarara egokitzen da. Bigun eta malgu dagoela jartzen da, eta, ondoren, hutsa egitean, igeltsua bezain zurrun bihurtzen da.

Material horrek beste osasun-arlo batzuetan ere izan ditzake aplikazioak, esaterako, ortopedian. Eta baita automobilgintzan, aisialdian eta kirolean ere, erabiltzaileen segurtasuna eta erosotasuna bermatzeko.

Merkaturatzen laguntzeko, oinarri



Varstiff materiala edozein gorputz-ataletan jar daiteke bigun dagoela, eta hutsa egitean igeltsua bezain gogor gelditzen da. ARG.: © TECNALIA.

teknologikoko enpresa berri bat sortuko da. Hasieran, osasun-sektorean jardungo du enpresa horrek, baina aurreikuspena da jarduera beste sektore batzuetara hedatzea, hala nola

automobilgintzara edo aisialdira. Aurreikuspenen arabera, enpresa berria 2013ko bukaeran egongo da martxan, eta 2014aren hasieran merkaturatuko du lehen produktua ●

Bertako landareak landatzen ari dira Bidasoako uharteetan, *Baccharis halimifolia* espeziearen kontrako planean

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika sailak bertako 14.000 zuhaitz eta zuhaixka landatzeko plana jarri du martxan Bidasoa ibaiko



ARG.: PATRICK COIN/CC-BY-NC-SA

Galera eta Santiagoaurrea uharteetan, bertako landaredia lehengoratzeko xedez. Izan ere, *Baccharis halimifolia* (txilka edo karkexa) espezie exotiko inbaditzailea hedatuta zegoen bertan. Ipar Amerikan du jatorria zuhaixka horrek eta Frantziatik iritsi da Bidasoa ibaiaren arrora.

Euskadiko gobernuaren Biodibertsitateko zuzendari Amaia Barredok dioenez, «landaketak bi helburu ditu: batetik, aipatutako espezieak *Baccharis halimifolia* espezie inbaditzailearekin lehiatzea bilatzen da, birkolonizazioa ekiditeko, eta, bestetik, munen eta lezoiaren higadura saihestu nahi da, uharte horietako dinamika bereziari eusteko. Izan ere, interes handiko landare espezie askoren bizilekua dira, eta gune garrantzitsua hegazti urtarrek atseden har dezaten eta elika daitezten».

Uharteetako natura-gunea lehengoratzeko jarduera Santiagoaurrea eta Galera uharteetan *Baccharis*

halimifolia landare exotiko inbaditzailea erauzteko lanak egin eta gero dator. 2012an egin zituzten erauzketa-lanak, eta oso positibotzat jotzen dituzte, «uharteetan ur gaineko azalera erabat estaltzen zuten zuhaixken % 90 erauzi ahal izan baita», azaldu du Barredok. Hainbestekoa zen inbasioa, ezen erauzketa-lanen ondoren, uharteetako babes-munak batera landare gabe geratu baitira, kendu ez diren zenbait ereinotz eta zuhaixka salbu. Santiagoaurrea eta Galera uharteetan landatze-prozesuan badaude ere, 2013an Bidasoa ibaiko estuarioaren gainerako aldeetan landare inbaditzailea kentzeko lanekin jarraituko dute. Eta, Bidasoa ibaiaren arroan ez ezik, Urdaibai ere *Baccharis halimifolia* espezieak hartuta duela identifikatuta dute adituek. Hortik ere desagerrarazi egin nahi dute, eta, Barredok azaldu duenez, «Bidasoan egindako erauzketa-lanetan ari gara orain Urdaibain» ●